

Lanbide Heziketako eskaintza erakusteko azoka, bihar

Bosgarrenez egingo dute Lanbide Heziketa Azoka; 200 ikasle gerturatuko dira Tolosako Trianguloa plazara, Tolosaldeko bost zentroen eskaintza gertutik ezagutzera // 2

«Entzuleen iritziak jasotzea eta plazara bueltatzea falta da»

IMANOL UBEDA
MUSIKARIA

Don Inorrez taldeak bigarren diskoa kaleratu du 'Esku hutsik' izenburupean; «esku hutsik etorri gara eta esku hutsik jarraitzen dugu» azaldu du Imanol Ubeda taldeko kideak // 5



MUGAK

LAUMUGARRIETA BISTARATUTA

Amasa-Villabonak, Zizurkilek, Asteasuk eta Anoetak muga egiten duten puntuan, Laumugarrieta mugarría berreskuratu dute; Zizurkilgo Hernandorena elkarteak, udalarekin elkarlanean, ari da mugarriekin lanean azken urtean // 4

JON MIRANDA



**ZATOZ EUSKALTELERA
HILAREN 30A BAINO LEHEN
ETA ESKURATU REALAREN
KAMISETA OFIZIALA**

Zain gaituzu **Tolosako eta Beasaingo** gure dendetan.
Ez zaitez gabe geratu...



Tolosaldeko Lanbide Heziketako zentroetako zuzendariak, Trianguloa plazan, bihar ospatuko den azokako karteekin. JOSU ARTUTXA

Inoiz baino xumeagoa, beti bezain garrantzitsua

V. Lanbide Heziketa Azoka ospatuko da, bihar, Trianguloa plazan; aurten, ordea, gonbidatutako 200 ikasleentzat soilik egongo da zabalik

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

2016az geroztik, indar handia hartu duen ekimena da Lanbide Heziketa Azoka, Tolosaldeko ikastetxe ezberdinen eskaintzek topo egiten duten gunea. Bosgarren edizioa izango da biharkoa; berez, iaz ospatu behar zuten, baina salbuespen egoera zela eta, bertan behera utzi zuten azken unean. «Ahalegin berezia egin nahi izan dugu aurten, proiektu honen oinarria den azoka presentziala aurrera eramateko», azaldu dute antolatzaileek.

Orain arte, bi eguneko azoka izaten zen; aurten, ordea, ostiralerara mugatu behar izan dute, segurtasun neurriak bermatu ahal izateko. 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik azoka, baina

eskualdeko ikastetxeetako DBHko eta batxilergoko ikasle gonbidatuentzat bakarrik. «Hamaika ikastetxeetatik, zazpik baieztatu dute euren presentzia, eta guztira, 200 ikasle inguru igaroko dira azokatik. Harrituta gaude emandako erantzunarekin, presentziala egitearekin bagenituelako zenbait zalantza. Ikaragarria izan da, eta uste genuena baino ikasle gehiago datoz; azkenean, ordutegia ere luzatu behar izan dugu».

Ezarritako neurriak betetzea ezinbestekoa denez, elkarrekin ez nahasteko, ikastetxe bakoitzeko ikasle taldeak aurrez adostutako ordutegi bat izango du; horiek, gainera, multzo txikiagotan banatuko dituzte, azokara txandakatuz sartzeko. «Bisita gidatuak egingo dira eta azokako

postu guztietatik igaroko dira ikasleak. Hori onuragarria da, bestela, askatasun handiagoa izaten dute mugitzeko, eta despistatuago ibiltzen dira. Modu honetan, bisita pertsonalizatua izango da, eta xehetasun handiagoarekin jasoko dute informazioa».

Egiturari dagokionez, berdin mantenduko da, nahiz eta azokara eramango den material erakusgarria, batez ere, informatiboa izango den. «Ez dugu aurreikusten tresna manipulagarriak eramatea, elkarrekintza suposatzen duten elementuak, alegia. Hortaz, informazioarako liburuxkak edota esku-orri eramangarriak izango dira. Zuzeneko arreta eskaini nahi diegu ikasleei, euren jakin-mina ase eta zalantza guztiak argitzeko».

JAKIN-MINA AREAGOTZEN

Tolosaldea LHII, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola, Fraisoro Eskola, Don Bosco LHII eta Peñascal Kooperatiba dira eskualdean Lanbide Heziketa zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeak. «Gure lana balioan jarri eta Tolosaldean dagoen kalitatezko eskaintza zabala ezagutaraztea dira azokaren helburu nagusiak. Hala ere, baditu bestelako erronkak ere, besteak beste, esperientziak partekatuz, ikasle, irakasle eta enpresen arteko harremanak eta sinergiak sustatzea, ikasketen ezaugarri orokorrak ikasleei zuzenean azaltzea eta emakumeen parte hartzea eta presentzia bultzatzea».

Aurten ere, iaz eskualdeko hezkuntza zentroekin abiatuta-ko ibilbideari jarraipena ematea

da Lanbide Heziketako ikastetxeen asmoa, bertako orientatzaileekin harremana berretsiz eta sortutako materiala helaraziz. «Elkarrekin eta herri mailan lankidetzan jarraitzeko borondatea dugu. Urrats xumea badi-rudi ere, ezinbesteko da, eskola horien orientazioarako eredu izaten jarraitzeko eta beraiek ere azokaren parte sentiarazteko».

Urtetik urtera, gizarteak, oro har, Lanbide Heziketarekiko «interesa handiagoa» erakusten duela diote zuzendariak. «Gorakada bat izan da, zalantzarik gabe. Eskaintza geroz eta aberatsagoa da, profesionalak hezten ditugu eta lanpostu bat lortzen duten ikasleentasa handia dugu». Gazteen kasuan, eskaintza geroz eta hobeto ezagutzen dutela eta jakin-mina ere handiagoa dela diote. «Gurasoek, berriz, beste aurreiritzi bat dute, eta horiengana hel-tzea ez da horren erraza».

Ikasleen profila ere aldatzen joan dela aitortzen dute. «Gaur egun, gustuko dutena ikasten dute, eta helburu finkorik gabe etortzen dira. Lanbide Heziketak unibertsitaterako bidea ere ireki dezake. Norberaren ikasketa prozesuko bide bat da, heldutasun puntu bat ematen duena, eta hori balioan jarri behar da.

IKASTURTE BEREZIA

Hezkuntza zentro askotan bezala, irailean zalantza ugari izan ziztuzten Lanbide Heziketa zentroetako zuzendariak. «Ahal dugun moduan ari gara egoerari aurre egiten, eta uste genuena baino arrakastatsuagoa izaten ari da, genituen beldur guztiak gainditzeko lortu dugulako. Inoizko esfortzu handiena eskatu du eta meritu handikoa izan da ikasle, irakasle eta gurasoen elkarlana».

Ikastetxe guztietan indartu behar izan dute *online* metodologia. Hala ere, «presentzialtasuna lehenetsiz» ari direla esan dute, ikasleak taldeetan banatuz eta taldeak elkar nahastu gabe. «Bestetik, guretzat giltzarri diren praktikaldiak bermatzen ahalegindu gara. Horiek ez egitea hutsune handia litzateke, ikasleak, enpresara joan eta bere lanbidea ikusi eta bizi behar duelako».

Aipatutako salbuespen egoera, neurri batean, «jasangarria» izaten ari dela aipatu dute. «Ikasleak taldekatzeak, egoera kudeatzeko erraztasunak eman dizkigu, baina isolatuta egoteak, eragin handia izan du ikasleentzako arteko harremanetan, emozionalki nahiz psikologikoki. Oro har, nahiko ondo ikusten ditugu, eta zintzotasun ikaragarriarekin ari dira jokatzen».

Zizurkilen indarkeria matxista kasu bat izan dela jakinarazi dute

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalak herrian izan den indarkeria matxista kasu baten berri jaso ondoren adierazpen bat kaleratu du. Jakinarazi duenez, joan den apirilaren 18an izan zen eraso. «Ikerketak eta justiziak bere bidea egingo du, eta udalak horren jarraipena egingo du».

Gertakari honen aurrean sexu eraso guztien aurkako jarrera berretsi nahi izan du udalak eta babes osoa adierazi dio eraso salatu duen emakumeari. «Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakoak ditu beti, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta mende izan nahi dituen ideologia. Beraz, indarkeria hori ez da ekin-tza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza».

Gernikako Arbola inguruko lanekin hasiko dira gaur

Erredakzioa Tolosa

Gernikako Arbola lorategiak ingurua berrurbanizatzeko lanekin hasiko da Tolosako Udalak gaur. Hain justu, gaur eremua obrarako prestatuko dute, eta datorren astean hasiko dituzte lanak. Bien bitartean, eremuan aparkatu ahal izango da. 2.500 metro karratuko eremuan eskuartuko dute, eta guztira, 480.000 euroko kostua izango dute lanek.

Bertako irisgarritasuna hobetuz, eta «herritarrentzat eremu atseginagoa eta seguruagoa erakiz», oinezkoen lehentasuna ematea da helburua. Udaletik esan dutenez, obrak amaitzean, tolosarrek paseatzeko espazio handiagoa izango dute, espaloia eta bidea maila berean jarriko direlako. Aurrerantzean, noranzko bakarra izango du zirkulazioak eta 14 aparkalekuko eremua izatera igaroko da.

Tolosaldeak Garatzenek diru laguntza jaso du, energia plana sustatzeko

400.000 euro bideratuko ditu foru aldundiak eskualdeetako energia planak bultzatzeko, eta Tolosaldeak 50.000 euro jasoko ditu plana garatzeko

Erredakzioa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen sailak 400.000 euro bideratuko ditu eskualdeetako energia planak bultzatu, energia pobreziari aurre egiten lagundu eta energia eredu jasangarriagoa sustatzeko. Horretarako, hitzarmena sinatu du lurraldeko hainbat garapen agentziarekin, tartean Tolosaldea Garatzenekin. Eskualdeko garapen agentziak 50.000 euro jasoko ditu Tolosaldeko energia eta elektromugikortasuna sustatzeko proiekturako.

Foru aldundiak esan du hitzarmenaren helburua dela iraunkortasun energetikorako estrategia komun bat bultzatzea, Gipuzkoako gizartearen pobrezia energetikoa murriztea eta honi aurrea hartzen laguntzea.

DIRU LAGUNTZAK

Bestalde, Tolosaldea Garatzenetik hainbat diru laguntzaren berri eman dute. Zehazki, SPRI Berrikuntzaren Euskal Agentziak eta IHOBE Eusko Jaurilaritzako



Eskualdeetako garapen agentzietako kideekin aldundiak eginiko ekitaldia. ATARIA

Ingurumen Jarduketarako sozietate publikoak ekonomia zirkularra, berrikuntza, parte hartzea, kudeaketa edo negozio eredu egokitzea sustatzea helburu duten hiru diru laguntza zabaldu dituzte.

Innobideak 2021 izenekoak berrikuntza, kudeaketaren hobekuntza, pertsonen parte hartzea, negozio ereduak egokitzea edo dimentsioa indartzea xede duten proiektuei babes emateko laguntza da. Lortu 2021 izeneko diru laguntzak industria pro-

duktu eta prozesuekin lotutako zerbitzuen kanpoko laguntza profesionala eskaintzea du helburu. Azkenik, Circular Berrindartzea 2021 laguntzak enpresa txiki eta ertainen prestakuntza hobetzea du xede, ekonomia zirkularrak planteatzen dituen erronken aurrean, eta baita gazte enplegua sustatzea. Ostirala da azken diru laguntza honetan izena emateko azken eguna, eta gainerakoetan irailera arteko epea edo diru funtsa amaitu artekoa jarri dute.

26

POSITIBO BERRI

Osasun sailak emandako datuen arabera, 12.709 test egin zituzten herenegun, eta 1.002 (%7,9) positibo atzeman zituzten. Horietatik, 420 Gipuzkoan izan ziren, eta 26, Tolosaldean: Tolosan 7, Amasa-Villabonan 6, Alegian 5, Ibarran 3 eta Amezketan, Asteasun, Baliarrainen, Bidania-Goiatzen eta Larraulen positibo bana.

Hilabete iraungo dute trenbidean egiten ari diren lanek

ANOETA-TOLOSA // Astelehenean hasi zen Adif enpresa Tolosa eta Anoeta arteko trenbide zatiaren azpiegitura obrak burutzen, Tolosa-Erdia tren geltokitik hurbil. Lanen ezaugarriengatik, gauez egin behar dituztela lanak esan dute, 00:00ak eta 05:00ak bitartean, lanegunetan, eta hila-beteko iraupena izatea aurreikusi dute.

Emozioen inguruko tailerra egingo dute Jabetze Eskolan

TOLOSA // Jabetze Eskolako Emozioak sormenaren bidez kudeatzen tailerra eskainiko du apirilaren 26an eta maiatzaren 3an, 10ean eta 24an, 15:00etatik 17:00etara, Leire Markinezen eskutik. Kultur etxean izango da, euskaraz, eta 5 euro balioko du.

GUTUNA

Apirilak 26 Ikusgarritasun Lesbikoaren Nazioarteko eguna

Zer da lesbiana izatea? Lesbiana izatea emakume izatea da; emakume izatea gizarteak markatzen dienez gaiti.

Egungo gizarteak hiru zutabetan errotua dago; heteroaraua, patriarkatua eta kapitalismoa. Lesbianak horri guztiari aurre egiten dio, pertsona oso eta aske izateko borrokatzen duen bitartean. Horregatik diogu lesbiana izatea ez dela apeta edo gustu sexual kontua soilik, baizik eta desberdindu eta klasifikatu egiten gaituen gizarte horri aurre egiteko jarrera iraultzailea dela.

Eta jarrera hau mantentzea zaila, gogorra eta askotan etsigarria da, hainbeste aurreiritzi, arazo legal edo arrisku fisikori aurre egin behar baita. Horregatik da behar-beharrezkoa lesbianismoa ikusaraztea. Jendarte sano eta askea nahi baldin badugu, nahi eta nahiezkoa da lesbiana izaera hori babestea, emakumea benetan bere buruaren jabe izan dadin, emakumea bera izan dadin, zu izateko.

Eusko Alkartasunatik beti bultzatuko dugu askeago, osoago eta justuagoa den gizarte eta pertsonak. Bide honetan, lesbianekin batera goaz.

Maitane Gonzalez Mugika

Tolosako Eusko Alkartasunako koordinatzailea

ataria **PERTSONA BAT BEHAR DU HARPIDETZA KANPAINARAKO**

ESKATZEN DA:

- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamiko eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.
- Marketinean eta Sare Sozialetan ezagutzak izatea baloratuko da.

ESKAINITZEN DA:

- Aldi baterako ordezkapen kontratua.
- Lanaldi osoa.
- Lantokia Tolosan.

Interesa duenak **Curriculum Vitae zehatza** bidali tkt@ataria.eus helbide elektronikora edo Tolosaldeko Atariara [San Esteban, 20. 20400 Tolosa] **2021eko apirilaren 28a baino lehen.**

Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Anoeta artean duela 150 urte jarritako mugarrria berreskuratu du Hernandorena kultur elkarteak, Zizurkilgo mugarrriak dokumentatzeko lanaren barruan

Laumugarrieta bistaratu dute

Jon Miranda

Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteak, udalarekin lankidetzan, herriko mugarrri guztiak aurkitu, garbitu, dokumentatu eta herritarrei ezagutarazteko lana abiatu zuen duela urtebete pasatxo. Elkarteko Joxin Azkuek eta Julian Arrastoak Aranzadi zientzia elkarteak Yoseba Alonso eta Jabi Castroekin osatu dute lan taldea eta astero-astero herrian erregistratutako 70 mugarrietatik falta direnak bilatzen ematen dute denbora. Berreskuratzen azkena, Zalberro deitzen zaion parajea dagoen Laumugarrieta mugarrria da.

Amasa-Villabonak, Zizurkil, Asteasu eta Anoetak muga egiten duten puntuan dago kokatuta 300 kiloko harritzarra. «Dokumentuetan ikusi genuen bazegoela aipamena, arrastoren bat egon behar zela eta, bila hasi eta 1871an jarritako mugarrriekin egin genuen topo; lurperatuta zegoen», esan du Azkuek.

Hernandorena kultur elkarteak XVII. mendera egin du salto azalpenak emateko: «1615. urtean Espainiako ogasuna kiebra jota zegoela, Zizurkil eta Anoetak Tolosarengatik banandu eta hiribildu titulua eskuratu zuten. Amasak ere urte horretan eskuratu zuen independentzia eta lau urte beranduago, 1619an bat egin zuen Villabonarekin, gaurdaino iraun duen udalerria sortuz. Asteasu, berriz, lehenago Tolosarengandik bereizita egon arren, 1639ra arte ez zuen eraba-



Hernandorena elkarteak, Aranzadikoak, lau herrietako alkateak eta udal langileak mugarrriaren bueltan. J.M.

teko burujabetzarik lortu». Hernandorenako kideek jakin ahal izan dute, lau herrietako alkateek 1683an Zalberro inguruan elkartu eta mugarrri bat jartzea erabaki zutela, lau herrietako mugarrak noraino iristen ziren adieraziz.

1871. urteko akta baten bitartez jakin dute hori guztia. Bertan kontatzen da 1683. urteko mugarrria hautsita dagoela eta lau herrietako alkateek toki horretan bertan mugarrri berri bat jartzea erabakitzen dutela. Harritzar hori da, orain lur azpitik atera eta ikusgai jarri dutena. Harri lan-

duak lau herrietako inzialak daramatza gainean, mugak zein diren adieraziz.

Lur azpian egon da oraintsu arte 1871. urteko mugarrria eta hura berreskuratzen hasi diren 1683. urteko mugarrria izan zitekeenaren puskak topatu dituzte harritzarraren bueltan lurperatuta. «Dokumentatuta dagoen mugarrria da eta 36ko gerra ondorenean, adibidez, sei zentimetroko luzera duela esaten da. Gainerako guztia lurrak janda zegoen».

Harria altza duten garaian konturatu dira kana bateko ga-

raiera duela (85 cm) eta karratua dela (35 cm x 35 cm). Mugarrriaren bueltan, lurperatuta teila pusketak ere topatu dituzte: «Teila jabegoaren ikur izaten da eta mugarrrien azpian horrelakoak maiz topatzen dira».

EKITALDIA LAUMUGARRIETAN

Laumugarrietan egin duten berreskuratze lana borobiltzeko, Hernandorena kultur elkarteak kideek Zizurkilgo, Amasa-Villabonako, Asteasuko eta Anoetako alkateak gonbidatu dituzte lau herriek muga egiten duten puntura. Bistarazi eta txukundu du-

ten mugarrriaren oinean, eta norberaren herriko lur eremuan, alkate bakoitzak teila puska bat jarri du eta gorriz pintatu harri gainekeko zizelkatutako herriaren inziala. 1683. urtekoa izan litekeen mugarrriaren puskak ere lurperatu dituzte 1871ekoaren oi-

1683ko mugarrria izan zitekeenaren puskak topatu dituzte orain berreskuratutakoaren bueltan lurperatuta

Alkate bakoitzak teila puska bat jarri du eta gorriz pintatu harri gainekeko zizelkatutako herriaren inziala

narrian. Zizurkilgo udal langileek ingurunea txukundu eta prest utzi dute.

«Harri dotorea da eta aurten, justu, 150 urte betetzen ditu. Uste dugu merezi duela orain arte errepide bazterrean, ia ezkutu egon den Laumugarrieta-ko jatorrizko mugarrria berreskuratzea eta bistaratzea», esan du Azkuek. Ondoan badu mugarrri berriago bat 1998an jarria eta hura ere tokian bertan mantendu dute.

Gipuzkoan, lau udalerrri mugakideren arteko mugarrriak gutxi direla baieztatu dute Hernandorenako eta Aranzadi zientzia elkarteak kideek, sei, guztira. «Horietako bat da Laumugarrieta eta zaharrenetakoa da gainera», baieztatu du Azkuek. Hemendik aurrera, ikusgai izango dute herritarrek mugarrri zaharra, bide zaharra.



Lau herrietako inzialak daramatza zizelkatuta 1871. urteko mugarrri zaharrak eta orain hizkiak pintatu egin dituzte. J.M.



DASTATU UZTA BERRIA

OSTIRALA, LARUNBATA
ETA IGANDEA
EGUERDIETAN

TOLOSATIK AUTOBUSA

ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM

Asier Imaz / Eneritz Maiz

Don Inorrez talde tolosarrak bigarren diskoa kaleratu du. Andaluzian grabatu duten lan berriari *Esku hutsik* izena jarri diote, eta Imanol Ubeda taldeko kideak «esku hutsik etorri gara, eta esku hutsik jarraitzen dugu», adierazi du. Diskoak salgai daude dagoe-neko, baina Don Inorrez zuzenean entzuteko aukerarik ez da momentuz. Ezohikoa den arren, ez dute kontzerturik lotuta.

‘Esku hutsik’ izena jarri dio-zue diskoari. Zer adierazi nahi izan duzue?

Diskoko kanta bat da *Esku hutsik*, eta Pello Lizarralde idazleak egin zuen letra hori nahita guretzat. Nire alaba jaio berrikan bidali zidan eta istorio bat kontatzen du. Narrazio edo istorio txiki bat letra batean jasoa da. Azalera edo diskoaren izenburura eraman dugu titulua, zeren garai hau oso-oso konplikatu da denontzat, baina bereziki esango nuke musikarientzat, eta batez ere, musikari profesionalentzat. Ostalariak gora eta ostalariak behera, eta arrazoi osoz segur aski, baina badaude beste sektore batzuk ere oso *jipoituak* izaten ari direnak eta horien artean daude musikariak.

Baita musikarien atzean egoten diren argi eta soinu teknikariak ere.

Dudarik gabe. Askotan gu aho bero batzuk gara eta fokua gudan jartzen dute. Gure inguruan eta gure atzean, ezker-eskuin jendea asko dago. Modu anonimoan lanean, gurea bezalako proiektuak aurrera ateratzen, eta horientzat ere oso garai txarrak izaten ari dira. Lehen modu prekarioan bazeuden, orain esku hutsik geratu dira asko eta asko.

Egoeraren irtenbidea nondik bideratuko zenuke?

Oso zaila da honi konponbide bakar bat ematea. Beste sektore askoren moduan, musikarien sektorea oso atomizatua dago eta kasuistika oso ezberdinak daude segmentuen arabera. Oro har, erroan badagoela zerbait esango nuke, eta ez da hartzen zerbait garrantzitsu moduan. Askotan lotu da kultura entretenimendura, eta nik uste dut entretenimendutik harago doala kultur sortzaile askoren ekarpena. Irtenbide estrukturalak behar direla uste dut, ez bakarrik partxe bat edo beste. Baina behin hasita laguntza batzuk zehaztea sektore konkretu batzuentzat egingarria izan daiteke. Etxebizitzaren krisiarekin banketxeak babestu zituzten moduan, orain langileak babestea tokatzen zaie,



Don Inorrez taldearen kontzertu bateko irudia. Imanol Ubeda, eskuinetik bigarrena. DON INORREZ / DAVID HERRANZ

«Diskoa kalean dugu, baina guk oraindik ez dugu plazarik jotzeko»

IMANOL UBEDA MUSIKARIA

‘Esku hutsik’ izeneko bigarren diskoa kaleratu du Don Inorrez talde tolosarrak; Imanol Ubeda taldeko kideak egoera «arraroa» bizitzen ari direla kontatu du

eta horien artean daude musikariak.

‘Barre ala negar’ deskribatzen ari zaren errealitate horren izenburua izan daiteke.

Izan daiteke. Nik kantu horretan adierazi nahi nuen, behin adin batean egonda, ez dakizula oso ondo non zauden. Ez zara gaztea, baina ez zaude erretiratzeko moduan. Toki bila zaude. Argazkitik kanpo geratzeko beldur hori duzu. Musikaren sektorea oso bizia da. Liluragarria da zenbat proposamen sortzen diren, eta asko eta asko ze interesgarriak diren. Normala den moduan gauza berriak gailentzen joaten dira, eta ez hain berriak direnek atzera egiten dute. Dramatismoan erori gabe eta kiroltasunez, halako parodia moduko bat da eta gure buruari eskainitako abesti bat.

Karlos Aranzegi izan duzu alboan, eta Andaluzia aldean

ibili zarete Paco Locorekin. Bide Ertzeanen itzaletik al dendu nahian edo?

Nik uste dut baietz. Zaila da. Urte asko egin ditugu Bide Ertzeanekin, eta oraindik orain, jende askok Bide Ertzeanekin lotzen gaitu. Musikalki bagenuen beste zerbait egiteko gogo. Power pop

estilora lotutako zerbait, eta hor Karlos Aranzegiren intuizioa oso garrantzitsua izan zen. Berak kantu horietarako oso egoki ikusten zuen Paco Loco ekoizlea. Eta bere intuizioari jarraituz El Puerto de Santa Mariaraino joan ginen duela hiru urte. Gure aurreikuspenak bete ziren; guk bilatzen genuen hori topatu genuen. Eta, hain justu, bigarren diskoa grabatzerako orduan ere berriro itzuli gara Paco Locorengana. Sonoritate aldetik eta artistikoki hasieran ezarritako premisa horiek berriro nahi genituelako.

Gustura lanarekin?

Bai, bueno grabazio bat beti da mendi errusiar bat. Gorabehera

asko ditu. Hor bertan egiten duzun lana betiko geratzen da, eta beti dago tentsioa. Era berean, Paco Loco oso ekoizle langilea da, eta badaki beti lan giro eder bat sortzen, eta grabazioa oso atsegina izan da. Zentzu horretan oso pozik etorri gara, grabazioa oso atsegina izan zelako. Eta emaitzarekin ere oso pozik gaude, baina behar bezala epaitzeko agian distantzia hartzea behar

«Gu pozik gaude. Falta dena entzuleek entzutea eta entzuleen iritziak jasotzea da»

dugu. Oraingoz gu pozik gaude, baina falta dena da eta oso garrantzitsua dena, entzuleek entzutea eta entzuleen iritziak jasotzea. Horrekin batera plazara bueltatzea.

Nola duzue plazara bueltatzeko agenda?

Bada hutsik. Esku hutsik etorri gara eta esku hutsik jarraitzen dugu. Egia esan, ez dakit zer esan. Gu saiatzen ari gara emaldiak lotzen, baina oraingoz ez daukagu data bat lotuta. Lehen ere guretzat ez dira inoiz izan gauzak errazak. Gu ez gara jende asko mugitzen duen talde bat, eta plazak ere ez ditugu asko egin, baina orain pandemiarekin pentsa, duela hiru urte Bilboko Kafe Antzokian jo genuen eta orain itxita dago. Durangoko Plateruenean jo genuen eta hori itxi egin dute. Berako Katakua osatuan jo genuen eta jada hor ezin dira kontzertuak egin. Gure plaza izan diren asko jada ez daude, eta berrietara ezin gara iritsi oraingoz, orduan, ea pandemiaren kontu hau arintzen den pixka bat, eta jotzeko aukerak sortzen zaizkigun. Guretzako hau oso arraroa da. Normalean disko bat atera orduko beti bagenuen kontzertu bat edo beste lotuta, eta orain da eguna diskoa kalean duguna, baina guk oraindik ez dugu plazarik jotzeko.



Erreserbak:
609 714 203 • 943 68 21 75

Elbarrena Kalea,
Aroztegi baserria, 9

20490 - Lizartza
Tel.: 609 71 42 03

Kutxa Bira Tolosaldeko hainbat herritara iritsiko da

Iparra Hegoak antolatu du egitasmoa, eta euskararen aldeko ekitaldi batzuk bertan behera geratzearen «galera emozionalak» konpentsatzea du helburu

Erredakzioa

Barruan euskarari lotutako hainbat mezu izango dituen kutxa batek herriz herri ibilbide bat egitea. Horixe da Kutxa Bira ekinbidearen funtsa. Carmen de Patagonesen (Argentina) hasi zen ibilbidea eta Euskal Herriko eta diasporako 70 bat herritatik igaroko da, maiatzaren 30ean Seguran amaitu arte. Tolosaldean ere izango da Kutxa Bira. Bihar Aduna eta Iruran izango da eta larunbatean Ibarran.

Herriz herriko aldarrikapenez gainera, Euskal Herri osoari zuzenduko zaion *Hitza da gure lurra* testua dago kutxan. Amets Arzallus bertsolariak idatzi du mezu orokor hori, eta herri guztietan irakurtzen dute. «Hemen landatu genuen gure hitza, eta landare hartatik sortu zen harreman sare mugagabe bat, orain gure herria deitu dezakeguna, Euskal Herria, euskara eman eta hartzen duen jendea», azaldu du Arzallusek, besteak beste, testuan. Horrez gain, bukaerako ekitaldian, parte hartu duten herri guztien ametsak plazaratuko dituzte.

Iparra Hegoa elkarteak 26 urte daramatza euskal nortasuna, euskararekiko atxikimendua eta herri izatearen kontzientzia pizten eta sendotzen. Hala ere, an-



Kutxa Bira egitasmoaren hasiera, martxoaren 20an, Argentinan. IPARRA HEGOA

tolatzaileek argi dute Kutxa Bira ez duela urteetan iraungo: «Datorren urtean gure ohiko formatura itzultzea da helburua; izan ere, gure herria oso aberatsa da festa eredu propioa duten ekitaldiak antolatzen, eta ez dugu beste baten beharrik ikusten». Hortaz, osasun krisiak eragindako egoerari erantzuteko sortu

HITZORDUAK

Aduna. Bihar 15:15ean emago diote ongi etorria Kutxa Birari, plazan.

Irura. Harrera eta ekitaldia bihar, 17:30ean plazan.

Ibarra. Ekitaldia egingo dutel larunbatean, 11:00etan, plazan.

den egitasmo bat da: «Ez dugu errepikatzeko asmorik».

Urterik urte haziz joan da Iparra Hegoa elkarteak antolatzen duen ekitaldi kulturala. Izan ere, oihartzun nagusia Segurako Euskal Asteak hartu badu ere, lurralde osoko euskaldunen eta elkarten arteko harremanak sare-tzen aritu dira Iparra Hegoa elkarteak kideak.

Horrez gain, azken urteetan Baionako Bernat Etxepareko ikasleak ere bete-betean murgildu dira elkartearen dinamikan. «Egunpasa gisa abiatu zen ekitaldi kultural hura ia bi hilabetera luzatu zen duela bi urte. Indarra hartzen ari gara, eta hori oso aberasgarria da».

Euskal Herriko historian sakontzen jarraitzeko aukera

Fernando Rojo geografiako eta historiako irakasleak Euskal Herriaren historiako ikastaroaren bigarren saioa eskainiko du larunbatean, Lizartzako kultur gunean

Leyre Carrasco Lizartza

Fernando Rojo Euskal Herriko historiara gerturatzeko ikastaro bat ari da eskaintzen Lizartzan. Lehen saioa pasa den larunbatean izango da, 11:00etatik 13:00etara, kultur gunean. Kalamitrake taldeak gonbidatuta eskainiko du saioa. Rojok esan du «gabezia» batetik sortu zela ikastaroa antolatzeko nahia. «Munduko herrialde guztiek bere historia zaindu egiten dute, baina euskaldunok ez». Horregatik, «nongo historia» kontatu baino gehiago, «noren historia» azaltzea du helburu.

Lehen saioa hasteko Marcous

Garvey kazetariaren esaldi bat aukeratu zuen Rojok; «Herri batek bere jatorria, historia eta hizkuntza ez baditu ezagutzen, sus-trairik gabeko zuhaitza da». Eta ondoren Euskal Herriko mugarri garrantzitsuenen inguruan hitz egin zuen, hala nola, Baskoniako Dukerriaren, Orreagako gudua-ren eta foruen inguruan, besteak beste.

Larunbateko saioan XIV. mendetik gaur arteko gertakariak azalduko ditu tolosarrak; hain zuzen, Nafarroako konkistarekin hasiz eta frankismoarekin bukatuz. Eta horretarako 36ko gerra eta Ipar Euskal Herriko Frantziako Iraultza izango ditu hizpide, besteren artean.



Pasa den larunbatean egindako saioan hartutako irudia. L.C.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Iribar eta Larrarte, Laboral Kutxa taldean nabarmentzen

Unai Iribar ibartarrak Duranako proba irabazi du, eta Eukene Larrarte tolosarrak hamargarren egin du Valentzian jokaturako nazioarteko proban

Imanol Garcia Landa
Ibarra/Tolosa

Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioa taldeko Unai Iribar eta Eukene Larrarte txirrindulariek as-teburu bete izan dute. Unai Iribar ibartarrak Duranako proba irabazi zuen igandean eta larunbatean zazpigarren helmugatu zen Markina-Xemeingo proban. Eukene Larrartek, berriz, hamargarren postua lortu zuen igandean, Valentzian egindako nazioarteko proban.

Emaizta onak lortzen ari da Iribar afizionatuen denboraldi honetan. Asteburuan lortutako emaitzek Abiatzen Torneoaren sailkapenean bigarren postuan jarri dute, 74 punturekin, lehen postuan dagoen Imanol Alvarezetik (Lizarte) sei puntura. «Sailkapenean orain pentsatzea ez da garrantzitsuena. Lasterketak ondo egiten zentratzea da egokiena, emaitza onak lortuz, puntu gehiago lortuko dira, eta horrekin bestea eskutik etorriko da», esan du Iribarrek.

Duranako proban, Araban, gauzak ondo atera zitzaizkion Iribarri, irabaztea lortu zuelako. Orokorrean proba lasaia izan zen, eta Gatzaga mendatearen bigarren igoeran hiru txirrindularik ihes egin zuten, tartean Iribarrek. Ihesaldiari eutsi zioten eta euren artean jokatu zuten garaipena, ibartarrak irabaziz. Afizionatuen lehen urtean bigarren egin zuen, bigarren urtekoa zenean hirugarren, aurreko urtean proba bertan behera geratu zen, eta aurten falta zitzaion postua lortu du.

Larunbatean, Markina-Xemeingo proban ere ihesaldian izan zen Iribar, baina ezin izan zuten ihes eginda iritsi. «Irteeratik bost kilometrora mendate bat igo genuen, jaitsieran, seguru joateko ondo kokatu nintzen, eta nahigabe lau txirrindularik metro batzuk hartu genituen, eta ondo konpondu ginen. Bi kilometroren faltan harrapatu egin gintuzten», esan du Iribarrek. Atzetik zihoan tropelean 40 txirrindulari zeuden, eta Iribar ondo kokatu zen azken esprinte-



Unai Iribar, Duranako proba irabazten, igandean. EUSKADIFUNDAZIOA



Eukene Larrarte, taldeak egindako egonaldi batean. MARKEL BAZANBIDE

an eta zazpigarren egitea lortu zuen. «Igandekoarekin baino larunbatekoarekin gusturago geratu nintzen. Lana ondo egitearen sentsazio hori izan zen. 100 kilometro ihes eginda joan, bi kilometroren faltan harrapatu, eta hala eta guztiz ere, esprinterako indar horiek izatea eta zazpigarren amaitzea, nik gehiago baloratzen dudana da».

Abiatzen Torneoko aurreko bi lasterketak ez ziren nahi bezala atera. Durangokoan erorikoa izan zuen Iribarrek azken kilometroetan, eta Amorebietako proban taldeak ez zuen parte hartu, kide batek positibo eman zuelako COVID-19ko test batean. Espainiako Koparen barruan sartzen den Balentziaga Memo-

rialean parte hartu zuen orain gutxi ere, baina ez zen nahi bezala atera: «Denboraldi hasierako helburu bezala nuen markatuta, baina ez nuen nire egunik onena izan gorputzaren aldetik. Bukarra aldean ihes eginda egon nintzen, baina Arrate igotzen hasi baino lehen harrapatu ninduten atzetik nituenak».

TALDE BERRIA

Eukene Larrartek denboraldi honetan taldez aldatu du eta UCI Women's Continental Team mailakoa den Laboral Kutxan hasi da errepideko lasterketetako. Pistako modalitatean lehiatzeko Gipuzkoa Ogi Berri taldearekin jarraitzen du, eta talde honetako beste bi txirrindulari ere

sartu dira berarekin batera Laboral Kutxan: Tania Calvo eta Garazi Estebez. «Aurreko urtean nengoen errepideko taldearen helburuak eta nire helburu pertsonalek ez zuten bat egin denboraldiaren erdialdera, eta uztea erabaki genuen», esan du Larrartek. «Ondoren Laboral Kutxa taldearen aukera iritsi zitzaidan. Talde polita ikusten nuen; egia da talde gaztea garena, esperientzia gutxikoa, baina gogo handiarekin gaude. Azken batean etxeko taldea da, eta hori nabaritzen da giroan eta baloreetan, eta horregatik erabaki nuen bertara joatea».

Valentziako Diputazioaren Sari Nagusian hamargarren postuan amaitu zuen Larrartek igandean. Nazioarteko partaide-tza izan zuen probak, UCI Women's Continental Team mailakoa izanik. «Etapia laua zen, eta gure apustua Tania Calvo zen, esprinter hutsa baita. Baina zor- te txarra izan zuen, lasterketa hasieran matxura izan zuelako, eta azkenean erabaki zen ni izatea esprintean ariko zena». Erorikoa ere izan zuen lasterketan zehar, baina esprinta jokatu ahal izan zuen tolosarrak eta azkenean hamargarren izan zen. «Agian esprinta hobeto egiteko aukera baren, baina pozik nago lortutakoarekin. Talde berria gara, eta garrantzitsua zen taldearentzat lehen hamar postuetan sartzea», esan du.

Valentziakoa denboraldiko bigarren proba izan zen, eta aurretik Nafarroan izan zuten lasterketa bat. Estatu mailako proba bat izan zen, aurreneko hamarretan sartu zen tolosarra, eta «pozik» dago bertan egindako lanarekin.

Pistari dagokionez, denboraldi honetan ez du aukerarik izan lehiatzeko, oraingoz egutegia hutsik geratu delako. Bere helburua Munduko Kopan, Europako Txapelketan eta Munduko Txapelketan parte hartzea da. Errepideari dagokionez, ahalik eta lasterketa gehienetan parte hartu eta esperientzia hartu nahi du tolosarrak, «pistan dudana nazioarteko mailara parekatzeko».

Pausoz pauso



Aulkitik

Intza Egiguren

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Ez zen izan nahikoa taldearen esfortzu handia, hiru puntuak etxean geratzeko. Asteazkenean zehar gogotsu entrenatu ondoren, ilusio handiz hartu genuen Castejonon aurkako partida. Bagenekien partida garrantzitsua zela eta hiru puntuak lortu behar genituela, sailkapenean aurrerapauso bat emateko. Ziur geunden partida zaila izango zela eta dena eman behar genuela emaitza positiboa lortzeko.

Partidari dagokionez, ezin izan genuen punturik lortu. Lehen zatian, partida hasi eta berehala beraiek markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Minutu batzuk pasa ondoren, kórner batetik iritsi zen Aioraren gola, berdinketa lortzeko. Zoritxarrez, atsedendia baino lehen, beraiek berriz ere markagailuan aurreratzea lortu zuten. Bigarren zatian emaitzari buelta eman nahian ekin genion, baina ez zen guk uste bezala joan eta ezin izan genuen partida aurrera atera.

Falta zaizkigun zortzi partidak garrantzitsuak direla jakinda, garbi dago, lanean jarraitu behar dugula, gure helburua lortzeko.

Hurrengo partida igande arratsaldean daukagu Berriozarren aurka. Aurreko asteetako dinamika jarraituz, ziur nago, gauzak ondo eginez gero hiru puntuak etxera ekarriko ditugula.

Goazen neskak!

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

Publikorik ez da onartzen partiduetan

1. JUBENIL MAILA Larunbata 24, 11:30ean
BILLABONA F.K.E. - OSTADAR S.K.T.

REGIONAL MAILA Larunbata 24, 15:30ean
BILLABONA F.K.E. - S. HERRERA

PREFERENTE MAILA Igandea 24, 17:45ean
BILLABONA F.K.E. - BEASAIN K.E.

 Billabona Fke

BABESTUTAKO EDUKIA

Hainbat udalek errenta aitorpena euskaraz egiteko deia egin dute

Eskualdeko 19 herritako udalek egin dute deia, Uemarekin elkarlanean; iaz eskualdean 7.804 pertsonak hautatu zuten euskara, aurreko urtean baino 83 gehiagok



Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezten bultzatu nahian errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi dute Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak eta Tolosaldeko 19 udalek, elkarlanean. Izan ere, lurralde bakoitzeko foru ogasunaren arabera webguneak, telefonoak eta gainerakoak aldatzen diren arren, moduak antzekoak dira kasu guztietan, eta horietan euskararen aldeko hautua egitea da kanpaina honekin Uemak lortu nahi duena.

BADAGO ZER HOBETUA

Helburua beraz, argia da: 2020ko errenta eta ondarea aitortzeko garaia heldu denez, bertako kide diren udalekin eta foru ogasunekin elkarlanean, herritarrei errenta aitortpena euskaraz egitera animatzea, «herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daite-

zen bultzatzeko», esan du Maier Ugartemendia Uemako teknika-riak. «Izan ere, errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua urtez urte gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik». Eskualdean gora egin du ere errenta aitorpena euskaraz egin dutenen kopuruak, baina badago zer hobetua; 2019an eskualdean 24.624 pertsonak egin zuten errenta aitorpena eta 7.721k aukeratu zuten euskara, eta iaz 24.823k egin zuten errenta aitorpena, 7.804k euskaraz.

Horregatik, eta administra-
zioa euskalduntzeko duen eragi-
nagatik, errenta aitortpena ahalik
eta herritar gehienek euskaraz
egitea garrantzitsua da Uema-
rentzat, «euskararen normaliza-
ziorako bidean udalerrri euskal-
dunak egiten ari diren beste
urrats bat baita». Urratsa sendoa
izan dadin, ordea, herritarren

babesa eta parte-hartzea ere beharrezkoa da, eta hautu horretan eragin nahi du aurten ere mankomunitateak, udalekin eta beste hainbat erakunde publikorekin elkarlanean abiarazitako kanpainarekin, euskarak dago-

kion lekua izan dezan adminis-
trazio publikoan ere.

ARRAZOIAK

Ugartemendiak esan du errenta aitortpena euskaraz egitea oso garrantzitsua dela eta horretarako udalen ekarpena ezinbestekoa dela. «Administrazioa euskalduntzeko urrats bat gehiago delako da garrantzitsua, eta baita udalerrri euskaldunetan, herritarrek kontzientziatzeko aukera ederra delako ere. Egunerokoan euskaraz aritu arren ohiko tramiteak gazteleraz egiteko ohitura alde batera utzi ahal izateko bide ematen du ere: erraza da, eta herriko egoera soziolinguistikoa islatzeko ahalegina da». Izan ere, gehitu du herriko egoera soziolinguistikoetatik urrun daudela oraindik ere datuak, azken urteotan, kanpaina hauei esker, ehunekoa goraka doan arren. Bukatzeko aipatu du adminis-

trazioari dagokiola herritarren eskubideak bermatzea. «Kasu honetan, urratsa eman dute erakunde publikoek eta orain herritarrei dagokigu erantzutea».

'OGASUNAREKIN EUSKARAZ'

Gaur egun, errenta aitoren gehienak mekanizatuak dira lurralde gehienetan. Gipuzkoan iaz abiarazi zuen 100.000 zergadun Ogasunarekin euskaraz egitasmoari helduko dio aurtengo Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lau urterako egitasmoa aurkeztu zuen iaz eta, horren barruan, Ogasunarekin euskaraz leloa gehituko dute aurtengo kanpainari lotutako euskarri guztietan.

Uemak ere, Foru Aldundiarekin bat eginez, lelo hori gehitu du udaletarako prestatutako euskarri denetan. Euskarri horiek egokitu dituzte gero tokian tokiko erakundeek, dagozkien mezuak eta datuak sartzeko.

2020ko errenta aitortzeko kanpaina
Internet bidez, telefonoz, banketxean
edo aholkularitzan. Aurten ere egin

ERRENTA AITORPENA
euskaraz!




ADUNARO ETXELA


ALZO


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA


AIZOLA